

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBAO EXHIBITION CENTRE, SA-K 2008-2011 BITARTEAN GARATUTAKO JARDUERAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean xedatutakoari jarraiki, Bilbao Exhibition Centre, SAk (aurrerantzean BEC) 2008-2011 aldian garatutako jardueraren fiskalizazioa mamitu du. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Fiskalizazio txostenak langileen alorrean eta kontratazioan legezketasunari buruzko alderdiak aztertzea besarkatzen du, garatutako jarduera ekonomikoaren analisia eta baita finantza egoerarena ere, guztia 2008-2011ko aldiari dagokiola. Baita, 2011ko ekitaldiaren urteko kontuak ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datozelako analisia ere.

Legezketasunaren atalean Epaitegiak uste du BECek zuzentasunez bete dutela 2008-2011 aldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, txostenean bertan zehaztu diren hainbat akats salbuetsita.

Zehatzago esanda, eta kontratazioarekin loturik, hainbat hornidura eta zerbitzu kontratutan eta ibilgetua erostekoetan, azpimarratzekoa da publizitate eta lehia printzipioak ez bete izana.

2011ko Urteko Kontuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du.

BECek 2008-2011 aldian izan duen jarduera ekonomikoaren azterketari dagokionez, negozioa, azoka, kongresua eta Bizkaia Arena banaka aztertzen ditu eta ondorioztatzen du esanez jardueraren beherakadak diru-sarrerek % 54 behera egitea ekarri duela eta horren erantzule % 87an azoka jarduera dela. Beherakada eragin duten faktoreen artean honako hauek bereizi dituzte: ekonomia krisia, negozioazio ahalmen handiagoko enpresa multzo berriak azaltzea eta berrikuntzak beste bide batzuetatik aurkez ditzaketen teknologia berrien sorrera.

2008-2011ko aldiaren finantza analisiak epe horretan aurre egin behar izan den finantza zama izugarria azpimarratu du, obren finantzaketarako hitzartutako maileguetatik eratorritakoa; era honetan zati-banatzen da zama hau: 68,2 milioi euroren interesak eta 25,1 milioi euroren amortizazioak; horiei aurre egiteko BFAk eta Eusko Jaurlaritzak batean egiten dituzten urteko 24 milioi euroren ekarpenak baliatu dira; horrek agerian uzten du 2014an 150 milioi euroren mailegu sindikatuen muga-egun data; horiei dagokienez, epe laburrera birnegoziatzeko aukera aztertu beharko da edo, kasua bada, Eusko Jaurlaritzak eta BFAk kopuru horri aurre egin beharko diote, erakunde hauen abala baitu maileguak.

Bestetik, finantza analisiaren atal honetan bertan jakinarazi da aztergai izan den aldiaren EBIDTAk (Irabaziak, Interes, Zerga, Baliogalera eta Amortizazio aurretik) negatiboak izan direla 17,1 milioi euroan; hauek 26,5 milioi euroan egindako beste inbertsio batzuekin batean ia osorik jorratu dute diruzaintza erabilgarria; horren aurrean HKEEK onduzkatatu du jarduerari eustea bere akziodunen finantza eta ondare babes gehigarriaren baitakoa izango dela.

Berebat, HKEEK hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz.